# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia | Iruña, 2006ko ekainaren 9a | 55. ZK.

## A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru Lege proiektuak:**

—Foru lege proiektua, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak bazter utzi du osoko zuzenketa (4. or.).

B SAILA:

**Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko abenduaren 10eko 33/2003 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (5. or.).

—Foru Lege proposamena, PFEZari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (5. or.).

E SAILA:

**Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalik eta azkarren ordezka dezan Fermin Villanueva jauna hezkuntzako mahai sektorialeko negoziazio-taldean. Erretiratutako mozioa (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Reina Sofía Ospitalean anbulantzia zerbitzua berma dezan, baita 22:00etatik aitzina ere. Osasun Batzordeak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri jakin batzuk har ditzan podologia zerbitzua dela eta. Osasun Batzordeak bazter utzia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erresonantzia magnetikoak egiteko eskaerari eta bestelako aukerei buruzko azterlan bat egin dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia (7. or.).

—Trenbide-azpiegituretako inbertsio eta jarduerak aztertzeko eta horri buruzko proposamenak egiteko ponentzia bat eratzeko proposamena. Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak bazter utzia (7. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak Itoizko urtegiaren segurtasuna dela-eta egindako txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
—Galdera, irakasleen prestakuntzarako aurrekontu kontusailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
—Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Galdera, “La huella universal de Francisco de Javier” ikus-entzunezkoaren aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Galdera, V. mendeurrenari buruzko publizitate-kanpaina orokorrerako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—Galdera, “Javier 2006” web gunearen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Galdera, Nafarroako eta Marokoko futbol selekzioen arteko partidaren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Galdera, Zentro Onkologikoa eraikitzeko eta haren ekipamendurako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
—Galdera, herrilan zuzendari nagusiaren otsailaren 17ko 356/2006 Ebazpenean galdatzen den dokumentazioa, administrazioaren eskuetan dagoena, eskatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
—Galdera, gora jotzeko errekurtsoak Administrazio Auzitegian behar bezala tramitatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
—Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldiei eta horien aurrekontu xehatuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
—Galdera, ikastetxe, herri eta ereduen araberako matrikulazio datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
—Galdera, Audenasak TeleTac txartelak ezartzeko asmorik ba ote duen jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
—Galdera, Parisen eginiko Marc-Antoine Charpentierren lanen kontzertuko gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—Galdera, Juan Andrés Jiménezen “La vida de un hombre santo” lanaren estreinaldirako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—Galdera, Pablo Sarasate Orkestrak, Iruñeko Orfeoiak eta bakarlari batzuek emanen duten kontzertu sinfonikorako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
—Galdera, Pablo Sarasate Kontserbatorioko Orkestrak Lorenzo Ondarraren Te Deum mezaren estreinaldia egiteko dagoen aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
—Galdera, Espainiako Irrati Telebistako Orkestrak emanen duen kontzertuaren aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
—Galdera, RTVEko orkestraren ekainaren 30eko kontzerturako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
—Galdera, Parisko Anaiki Abesbatzak emanen duen kontzertuaren aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
—Galdera, Frantzisko Xabierkoaren antzerki lana taularatzeko aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
—Galdera, Afrika, India eta Japoniako folklore-taldeen ekitaldietarako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—Galdera, foru erkidegoko abesbatza eta musika banden ekitaldietarako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren otsailaren 15eko 36/2006 Foru Aginduan galdatzen den dokumentazioa, administrazioaren eskuetan dagoena, eskatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
—Galdera, Nafarroako Museoan eginen den grabatu japoniarrei buruzko erakusketarako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
—Galdera, “El mundo alrededor de Javier” izeneko kongresuaren antolaketari eta hartarako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

—Galdera, Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetari buruz Mexiko, Goa eta Tokion egitekoak diren kongresuen aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
—Galdera, “Francisco de Javier. Regreso y Encuentro. Misión y compromiso por la vida digna y la justicia” izeneko kongresuaren aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
—Galdera, “Un navarro en tierra de los daimios. El legado de Francisco de Javier en Japón” izeneko dokumentalaren ekoizpenerako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
—Galdera, “San Francisco Javier y su época: religión, arte, historia, literatura” ikus-entzunezkoaren ekoizpenerako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
—Galdera, V. mendeurrenaren aipamena egiten duten orrialde-markagailu egutegidunen ediziorako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
—Galdera, liburutegi publikoetan Frantzisko Xabierkoari buruzko informazio-guneak paratzeko aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
—Galdera, Xabierren turismo-bulego bat instalatzearen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
—Galdera, Xabierren ospatze-urtean zehar guneak eta ekipamenduak prestatzeko aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
—Galdera, “Nafarroako Erresuma, lur anitza” esloganari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
—Galdera, Osasun Departamentuak plangintza eta aurreikuspena direla-eta zentro psikogeriatrikoari egindako proposamenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
—Galdera, kontratazio mahaiari buruzkoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
—Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira aldeek errekurtsoak aurkezteko ezarritako epeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

**A saila:**
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

# Foru lege proiektua, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzen duena.

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DU OSOKO ZUZENKETA*

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko ekainaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Aralar parlamentu-taldeak Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordera igorri da.

Iruñean, 2006ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**B saila:**
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

# Foru Lege proposamena, Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko abenduaren 10eko 33/2003 Foru Legea aldatzekoa.

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2006ko ekainaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamena, Larrako natur erreserba eta haren babespeneko eremu periferikoa berriz mugatzeari buruzko abenduaren 10eko 33/2003 Foru Legea aldatzekoa aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2006ko apirilaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

# Foru Lege proposamena, PFEZari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzekoa.

*OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Legebiltzarrak, 2006ko ekainaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Aralar, Eusko Alkartasuna eta Askotariko parlamentu-taldeek aurkeztutako Foru Lege proposamena, PFEZari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua eta bigarren xedapen gehigarria aldatzekoa aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2006ko apirilaren 18ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**E saila:**
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalik eta azkarren ordezka dezan Fermin Villanueva jauna hezkuntzako mahai sektorialeko negoziazio-taldean.

*ERRETIRATUTAKO MOZIOA*

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Nafarroako Gobernua premiatzen da ahalik eta azkarren ordezka dezan Fermin Villanueva jauna hezkuntzako mahai sektorialeko negoziazio-taldean”.

Legebiltzarrak, 2006ko ekainaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkezturiko mozioa erretiratutzat jotzea. Mozio hori 2006ko maiatzaren 15eko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Reina Sofía Ospitalean anbulantzia zerbitzua berma dezan, baita 22:00etatik aitzina ere.

*OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Nafarroako Gobernua premiatzen da Reina Sofía Ospitalean anbulantzia zerbitzua berma dezan, baita 22:00etatik aitzina ere”.

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2006ko ekainaren 6an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko apirilaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri jakin batzuk har ditzan podologia zerbitzua dela eta.

*OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri jakin batzuk har ditzan podologia zerbitzua dela eta”.

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2006ko ekainaren 6an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erresonantzia magnetikoak egiteko eskaerari eta bestelako aukerei buruzko azterlan bat egin dezan.

*OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Nafarroako Gobernua premiatzen da erresonantzia magnetikoak egiteko eskaerari eta bestelako aukerei buruzko azterlan bat egin dezan”.

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak 2006ko ekainaren 6an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

## Trenbide-azpiegituretako inbertsio eta jarduerak aztertzeko eta horri buruzko proposamenak egiteko ponentzia bat eratzeko proposamena.

*LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordeak, 2006ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, trenbide-azpiegituretako inbertsio eta jarduerak aztertzeko eta horri buruzko proposamenak egiteko ponentzia bat eratzeko proposamena baztertu du. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu zuen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak Itoizko urtegiaren segurtasuna dela-eta egindako txostenari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak Itoizko urtegiaren segurtasuna dela-eta egindako txostenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 13ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak Itoizko urtegiaren segurtasunarekin zerikusia duten zenbait alderdiri buruz egindako txostenari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Galdera.

Ingurumen Ministerioak Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoari txosten bat eskatu zion Itoizko urtegiaren segurtasunarekin zerikusia zuten zenbait alderdiri buruz; txosten hori, oraindik ere ofiziala ez bada ere, gure erkidegoko komunikabide batean argitaratu da.

Horri buruz, parlamentari honek ondokoak jakin nahi ditu:

Lehena. Ea Nafarroako Gobernuak, ofizialki nahiz bestela, txostena eta hura prestatzeko prozesua ezagutu ote dituen.

Bigarrena. Hari buruz zer balorazio egiten duen.

Hirugarrena. Ea aurreikusia ote duen jardutea, bere erantzukizunez baliatuz, aipatu txostenean (edo, kasua bada, behin betikoa eta ofiziala izanen den txostenean) zehazten diren gomendio guztiak bete daitezen.

Erantzuna.

Lehena.

Nafarroako Gobernuak txostena ezagutzen du agiri publikoa delako eta Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoaren web orrian irakur daitekeelako.

Bigarrena.

Erantsi ditugun azterlanaren ondorioak oso argiak dira; beraz, ez dute inolako baloraziorik behar.

Hirugarrena.

Nafarroako Gobernuak, bere eskumen esparruan, ez ditu gomendatutako neurriak burutu behar.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 28an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

# Galdera, irakasleen prestakuntzarako aurrekontu kontusailei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak irakasleen prestakuntzarako aurrekontu kontusailei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 13ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Irakasleen Prestakuntza Atalaren kontusailei buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

2006an, Irakasleentzako laguntza zentroek irakasleen prestakuntzarako duten aurrekontuko zuzkidura 777.001 eurokoa da. 2006ko aurrekontuan, "Prestakuntza jarduetarako materiala erostea" izeneko kontusailak euro bakarra izateak ez du esan nahi irakasleentzako laguntza zentroek behar bezalako materialeko ekipamendua ez dutenik.

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak eta Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren menpeko Red.es izeneko estatuko sozietate publikoak "Internet ikasgelan" izeneko programa sustatu dute; programa horren bidez, Hezkuntza Departamentuak hezkuntza sistema publikorako -irakasleentzako laguntza zentroak barne- informatikako materiala erosten jarraituko du. Aipatu programari esker, bi erakundeek honako materiala emanen diete Nafarroako irakasleentzako laguntza zentroei:

Nafarroako irakasleentzako laguntza zentroek arbel digital bana, bideo-proiektagailu bana eta ordenagailu eramangarri bana jaso zituzten.

2005eko azaroan, Nafarroako Gobernuak Red.es-ekin egindako hitzarmena onartu zuen eta 3.051.000 euroko gastua baimendu zuen, 2006, 2007 eta 2008 ekitaldietako aurrekontuen kargura zati berdinetan banaturik; diru horrekin "Internet ikasgelan" izeneko programaren % 60 finantzatuko dute. Programa horrek, guztira, 5.076.616 euroko zuzkidura du.

Programa honen helburua bikoitza da: alde batetik, hiru urteko epean Nafarroako ikastetxe guztiek interneterako banda zabaleko sarbidea izan dezaten teknikoki lortzea; beste aldetik, Nafarroako irakasleak prestatzea eguneroko hezkuntza lanetan teknologia berriak sar ditzaten. Horrela lortu nahi da ikasleak gutxienez asteko irakasdenboraren % 10 ordenagailuaren bidez ikastea.

Nafarroako Gobernuak 2007ko ekitaldiko irakasleen etengabeko prestakuntzarako kontusailei Parlamentuak onartuko duen zuzkidura emanen die.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoaren 28an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

## Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko heldu den apirilaren 7an Xabierren eginen diren ekitaldien aurrekontuari buruz. Hona hemen Toki Administrazioko kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledun denaren erantzuna:

Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko eginen diren ekitaldien aurrekontua ezin da zehaztu behin betiko egitaraua ezagutu arte eta gonbidatutako agintariak etorriko diren ala ez jakin arte. Espainiako errege-erreginak eta Bono jaunak, Espainiako Gobernuko Ministroak, etorriko direla baieztatu dute. Nolanahi ere, hasiera batean aurreikusitako zenbatekoa 58.000 eurokoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilean

Toki Administrazioko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higueras

---

## Galdera, “La huella universal de Francisco de Javier” ikus-entzunezkoaren aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak “La huella universal de Francisco de Javier” ikus-entzunezkoaren aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekoiztu den “La huella universal de Francisco de Javier” izeneko ikus-entzunezkoaren aurrekontuari buruz. Hona hemen Toki Administrazioko kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledun denaren erantzuna:

“La huella universal de Francisco de Javier” izeneko ikus-entzunezkoa, hasiera batean, gaztelaniaz eta ingelesez egin zen, eta lehenengo argitalpena agortu zen. Ondoren, bideo hori beste bost hizkuntzatara itzuli zen eta entzumen urritasuna duten pertsonentzat egokitako bertsio bat ere egin zen, azpitituluekin. Horren kostua 11.630,16 eurokoa da, eta horiei karatula eta diskoen diseinuaren kostua gehitu behar zaie, hau da 473,28 euro. Aurreikusita dago diru hori berreskuratzea aleak bost eurotan salduz.

Enpresa adjudikazio-hartzailea “Fase 3” izan zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoan

Toki Administrazioko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higueras

# Galdera, V. mendeurrenari buruzko publizitate-kanpaina orokorrerako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak V. mendeurrenari buruzko publizitate-kanpaina orokorrerako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren ospakizuna iragartzeko antolatu den publizitate kanpainaren aurrekontuari buruz. Hona hemen Toki Administrazioko kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledun denaren erantzuna:

2006ko urte kulturala sustatzeko, zabaltzeko eta iragartzeko egindako inbertsioa 1.182.680,5 eurokoa da. Egin beharreko ekitaldirik nabarmenetako bat da 2005. eta 2006. urteetan zehar ospatzekoa den Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena. Aipatu kanpaina sortzeaz eta kudeatzeaz “Gap´s Navarra” izeneko enpresa arduratu da, enpresa horrek irabazi baititu ekitaldi horiei dagozkien lehiaketak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilean

Toki Administrazioko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higueras

# Galdera, "Javier 2006" web gunearen kostuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak "Javier 2006" web gunearen kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko egin den "Javier 2006" izeneko web orriaren kostuari buruz. Hona hemen Toki Administrazioko kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledun denaren erantzuna:

"Javier 2006" web orria 8.676 euro kostatu da; horietatik, 8.120 euro orria egiteko izan ziren eta 556,8 euro domeinuak erregistratzeko. Enpresa adjudikazio-hartzailea IMASCÉ izenekoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoan

Toki Administrazioko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higueras

# Galdera, Nafarroako eta Marokoko futbol selekzioen arteko partidaren kostuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Nafarroako eta Marokoko futbol selekzioen arteko partidaren kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko apirilaren 3ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Askotariko parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Nafarroako futbol selekzioarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Toki Administrazioko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eledunaren erantzuna:

2005eko uztailaren 22an Nafarroako Parlamentuari emandako fakturen azalpena Nafarroako Kutxa Fundazioak eman zuena da, eta horretan ekimenaren kostua bilduta dagoela ulertzen da. Departamentu honi aurkeztutako ziurtagirietan agertzen diren gastuak bi erakunderen artean adostutako 165.000 euroak baino handiagoak ziren; nolanahi ere, Gobernuaren ekarpena kopuru hori izan zen. Nafarroako Gobernuaren ustez, Nafarroako Kutxa Fundazioaren ordainketei eta dirusarrerei buruzko informazioa fundazioaren sustatze-politikari dagokio eta gobernuak ez du hori baloratu behar.

Metxeroak banatzeari buruzko informazio okerra zela eta sortutako gaizki-ulertuari dagokionez, kontseilari honek ez du inolako arazorik galdegileari barkamena eskatzeko. Alderantziz ere, uste dugu parlamentari horrek egindako akatsa onartu beharko lukeela, bitan aipatu zuelako data oker bat nafar guztien futbol selekzioa barregarri uzteko. Bestalde, hedabideen bitartez promozio-kamiseten prezioari buruz sortarazi zituen zalantzak argitu beharko lituzkeela uste dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko martxoan.

Toki Administrazioko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higueras

# Galdera, Zentro Onkologikoa eraikitzeko eta haren ekipamendurako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Zentro Onkologikoa eraikitzeko eta haren ekipamendurako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Nafarroako Ospitaleko Erradioterapia Zerbitzurako azeleragailuen erosketari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak abenduaren 21ean emandako 1796/2001 Ebazpenaren bidez adjudikatutako azeleragailu linealak eman eta ordaindu gabe dira, izan ere, teknikoki ezin da holakorik egin horiek kokatuko diren erradioterapia zentroa eraiki arte.

Adjudikatutako materialaren zenbatekoak, emana eta ordaindua, 416.213 euro egin zuen, eta 2002ko ekitaldiari (216.151 euro) eta 2003koari (200.062 euro) egotzi zitzaizkien.

Behin baino gehiagotan azaldu dugunez, Plan Onkologikoaren barruan lehentasuna eman genion erradioterapia zentroari. Beste aldetik, Plan Onkologikoan bertan ezarrita dagoenez, eta planaren izaera estrategikoa kontuan izanik, azpiproiektu bakoitzerako berariazko kronograma zehatzagoak behar dira.

Halaber, aipatu behar da mojak eta sindikatuak lekuz aldatu behar izan direla; hain zuzen ere, Nafarroako Ospitaleko M-6 eraikinera eta pabiloi urdinera, hurrenez hurren. Hori dela eta, leku horiek eraberritzeko eta egokitzeko beharrezkoak izan diren proiektu arkitektonikoak eta obrak egin dira.

2004an, “Onkologia planaren obrak” izeneko kontusailaren 1.777.557 euro horretarako erabili ziren:

| | |
|---|---|
| Nafarroako Ospitalea eraberritzeko lanak | 243.000 € |
| Nafarroako Ospitaleko obra txikiak | 185.000 € |
| Nafarroako Ospitaleko ekipamendu medikoa | 25.000 € |
| Nafarroako Ospitaleko beste lan batzuk | 400.000 € |
| Osasun Publikoaren Institutuko botikak | 886.138 € |
| Farmazia prestazioak | 38.419 € |

“Ekipamendu onkologikoa” izeneko kontusailaren 375.000 euro horretarako erabili ziren:

| | |
|---|---|
| Nafarroako Ospitaleko ekipamendu medikoa | 70.000 € |
| Nafarroako Ospitaleko beste altzari batzuk | 305.000 € |

2005ean, “Onkologia planaren obrak” izeneko kontusailaren 1.092.113 euro horretarako erabili ziren:

| | |
|---|---|
| Nafarroako Ospitalea eraberritzeko lanak | 229.700 € |
| Nafarroako Ospitaleko obra txikiak | 353.910 € |
| Nafarroako Ospitaleko altzariak | 18.000 € |
| Nafarroako Ospitaleko ekipamendu medikoa | 4.000 € |
| Tuterako Ospitalea eraberritzeko lanak | 260.375 € |
| Osasun etxeetako lanak | 218.922 € |
| Anbulatorioak eraberritzeko lanak | 7.206 € |

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

# Galdera, herrilan zuzendari nagusiaren otsailaren 17ko 356/2006 Ebazpenean galdatzen den dokumentazioa, administrazioaren eskuetan dagoena, eskatzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak herrilan zuzendari nagusiaren otsailaren 17ko 356/2006 Ebazpenean galdatzen den dokumentazioa, administrazioaren eskuetan dagoena, eskatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du 2006. urtean ezponda harritsuak egonkortu eta neurri zuzentzaileak hartzeko Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntzen deialdia onesten duen otsailaren 17ko 356/2006 Ebazpenari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Galdera.

Aipatu ebazpenean Foru Komunitateko administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa eskatzen zaie interesa duten interesdunei, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluko f) letrak ezartzen duenaren urraketa agerikoa eginez. Zergatik?

Ba al dago horri buruzko irizpide bateraturik foru erkidegoko administrazioan, praktikan departamentu batzuetatik besteetara eskakizunak hainbeste alda ez daitezen?

Erantzuna.

1. Herrilan zuzendari nagusiak, martxoaren 34ko 462/2006 Ebazpenaren bidez, 2006. urtean ezponda harritsuak egonkortu eta neurri zuzentzaileak hartzeko Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntzen deialdia –otsailaren 17ko 356/2006 Ebazpenaren bidez onetsia– aldatu du. Aldaketa horren bidez, deialdiaren 3. oinarriko 2. idatz-zatia kendu da. Idatz-zati horretan agiri zehatz batzuk aurkezteko eskatzen zen. Aipaturiko ebazpenaren kopia erantsi dugu.

2. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak indarra duen araudiak ezarritako irizpideak bete behar ditu, eta zehazki, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritakoa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 5ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: Aipatu zerrenda foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

# Galdera, gora jotzeko errekurtsoak Administrazio Auzitegian behar bezala tramitatzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak gora jotzeko errekurtsoak Administrazio Auzitegian behar bezala tramitatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du gora jotzeko errekurtsoak Administrazio Auzitegian behar bezala tramitatzeari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galdegileak, Nafarroako Administrazio Auzitegiko kide izanik, ongi dakien bezala, errekurtsoa aurkezten denetik txostengilearengana ebazteko heltzen den arte –administrazio izapideak egin ondoren–, prozesuetan ematen diren gertakariak asko eta oso ezberdinak izaten dira: hala nola, espedientearen bidalketa atzeratzea, frogak gauzatzean izandako zailtasunak edo interesdunei jakinarazteko zailtasunak; hori dela eta, errekurtso-egileen eskubideak bermatu nahiak eragozten du errekurtsoak ebazteko legez ezarrita dauden epeak hertsiki betetzea, nahiz eta Administrazio Auzitegiko oraingo eta lehengo kideen nahia oso bestelakoa izan.

Horretaz gain, aurkeztutako errekurtso kopuru handiari ere arreta eman behar zaio; 2004an 6.800 errekurtso izan ziren eta 2005ean 6.023.

Hori dela eta, errealitatea etengabe aztertzen da, ebazteko epeen arrazoiak eta kausak identifikatzen dira, eta kasuan kasuko erantzun egokia bilatzen da; izan ere, Nafarroako Gobernuak eta Administrazio Auzitegiko kideek herritarrei ahalik eta zerbitzu hoberena emateko kezka dute, betiere, tresna juridiko horren bidez baliarazten diren interesei kalte egin gabe.

Horretarako, errekurtsoen izapideak egitean sar daitezkeen hobekuntzak etengabe aztertzen dira, bai bide telematikoetan hobekuntzak ezartzeko –hobekuntza horiek segurtasun juridikoa kaltetu gabe onartzen dituzten izapidetan–, bai euskarri informatikoak eta giza baliabideen kudeaketa hobetzeko; izan ere, duela gutxi auzitegiko lanpostu batzuk egonkortu egin dira.

Beste aldetik, ez da baztertu antzeko organo ebazleekiko –administrazio honetakoak edo beste batekoak– konparazio-azterlan bat egitea, izapideak egiteko eta ebazteko epeei buruzkoa; horren bitartez, beharrezkoak diren arau aldaketak bultzatu nahi dira, atzemandako arazoei erantzun eraginkorragoa emateko eta herritarrek arlo guztietan administrazio azkar eta eraginkorra izateko duten eskubidea asebetetzeko; hori guztia, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztearen prozedurak eskatzen dituen segurtasuna eta zorroztasun juridikoa kaltetu gabe.

Dena den, esan dugun bezala, galdegileak –Administrazio Auzitegiko kide izanik– organoaren funtzionamenduari buruz duen aparteko ezagutza dela eta, kontseilari honek galdegileak egin lezakeen edozein iradokizun gogoz onartu eta aztertuko luke; betiere, kontuan izanik ebazteko epeak eta prozedura-arazoak antzekoak direla orain eta galdegilea auzitegian lanean ari zen garaietan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

# Galdera, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldiei eta horien aurrekontu xehatuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko antolatu diren ekitaldiei eta horien aurrekontu xehatuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 6ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera egin du Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren ospakizunarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Laster, 2006ko apirilaren 7an, Xabierko Gazteluan Frantzisko Xabierkoa jaio zenetik 500 urte beteko dira; Frantzisko Xabierkoa Sorbonako irakaslea, Jesusen Lagundiaren sortzaileetako bat, ekialde urrunean misiolaria eta mendebalde eta ekialderen arteko ezagutzan eta elkar ulermenean aitzindaria izan zen.

Nafarroako Gobernuak antolatu ditu mendeurrenaren ekitaldiak honakoekin elkarlanean: Jesusen Lagundia, Iruñeko Artzapezpikutza, Xabierko Udala eta Nafarroako Kutxa Fundazioa. Gaur den egunean, estatuko administrazio orokorrak egin behar duen ekarpena zehaztu gabe dago. Ospakizun horien helburua da Xabier gune kultural eta turistiko erakargarri bihurtzea Nafarroatik kanpo.

Kultur programazioari dagokionez, Gobernuaren 2005eko azaroaren 3ko erabakiaren bidez “Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa” izeneko programaren oinarrizko lerroak ezarri ziren. Kultura eta Turismo kontseilariak, 2006ko urtarrilaren 24ko Foru Aginduaren bidez, V. mendeurrena ospatzeko programazio ofiziala onetsi zuen, eta kontseilari horrek ere, 2006ko otsailaren 15eko Foru Aginduaren bidez, aipatu programaren zati bat betearaztea “Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra S.A.” sozietate publikoaren esku utzi zuen.

Hona hemen prestatutako kultur programazioa, ospakizunen datak, tokiak eta kalkulaturiko kostuen aurrekontuak zehazturik:

Kontzertuak

Otsailaren 28tik martxoaren 12ra arte
San Ignacio de los Moxos orkestraren kontzertu zikloa
Amerikako misioetako barrokoa
Lekunberri, Tutera, Los Arcos, Lizarra, Iruña eta Xabier
Aurrekontua: 15.000 euro

Apirilaren 1etik irailaren 30era arte
“Mil voces cantan a Javier” izeneko kontzertu zikloa
Nafarroa osoko abesbatzak
Larunbat, igande eta jaiegunetan
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 117.000 euro

Apirilaren 7an
Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren ospakizun nagusia
Iruñeko katedraleko musika-kapera eta Leireko monasterioko monjeen abesbatza
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 6.000 euro

Apirilaren 7an
Ignazio Loiolakoaren eta Frantzisko Xabierkoaren Kanonizaziorako Apoteosia
Ensenble Elyma eta Iruñeko Ganbera Abesbatza
Baluarte
Aurrekontua: 115.000 euro

Apirilaren 8an
Nafarroako gazteek Frantzisko Xabierkoari abesten diote
“Gizon santu baten bizitza” izeneko opera
Xabier orkestra, Oberena abesbatza eta bakarlariak
Iruñeko San Francisko Javier eliza
Aurrekontua: 15.200 euro

Apirilaren 9an
W.A. Mozarten Meza Do klabean
Pablo Sarasate Orkestra eta Iruñeko Orfeoia
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 61.000 euro

Apirilaren 12an
Florentziako Ensemble vocal Tempus Floridum
Errenazimentuko polifonia, madrigalak, herri- kantak eta polifoniak
Xabierko basilika
Aurrekontua: 4.500 euro

Apirilaren 28an
Beethovenen 9. sinfonia
Pablo Sarasate kontserbatorioko orkestra eta Kawaguchiko abesbatza
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 10.200 euro

Apirilaren 29an
Aragoiko musika eta dantza
Xinglar taldearen emanaldia
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 1.000 euro

Maiatzaren 21ean
Japoniako kantak eta Beethovenen 9. Sinfonia
Pablo Sarasate kontserbatorioko orkestra eta Yamaguchiko abesbatza
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 10.200 euro

Maiatzaren 27an
Radio Tarifa
Fiebre Tour 2006
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 40.100 euro

Ekainaren 3an
Madredeus
Faulas do Tejo
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 78.700 euro

Ekainaren 10ean eta 11n
Noa
Live 2006
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 174.400 euro

Ekainaren 12tik 16ra bitarte
Abesbatzen astea Mundutik Xabierrera
Salt Lake Cityko University of Utah Singers
Budapesteko Victoria Kamarakorus
Osloko Schola Cantorum
Nyiegyhaza-ko (Hungaria) Cantemus Gyemerkkar
Ankarako (Turkia) Bilkent Youth Choir
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 25.800 euro

Uztailaren 5ean:
The Chieftains.
The wide world over
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 92.400 euro

Abuztuaren 6an
In Honorem Sancti Xaverii Canticum eta Te Deum
M.A. Charpentierren lanak
"Pablo Sarasate" Kontserbatorioko orkestra
Errenteriako Andra Mari abesbatza
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 28.400 euro

Irailaren 2an eta 3an
programa berezia Umeek Xabierri abesten diote
Bartzelonako Sagrats Cors eskolania, Iruñeko Orfeoiaren eskolania eta Leitzako Asketa Txiki Abesbatza
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 5.100 euro

abenduaren 3an
V. mendeurrenari amaiera emateko ekitaldiak
"Pablo Sarasate" Kontserbatorioko orkestra eta abesbatza
Lorenzo Ondarraren Meza eta Te Deum-a
Frantzisko Jatsukoaren aretoa
Aurrekontua: 31.400 euro

Kongresuak

2006ko udaberria eta udazkena
El mundo alrededor de Javier
Nafarroako Museoa, Artxibo Nagusia, Xabier, Bertizko Jaurerria eta Golem zinemak
Aurrekontua: 197.200 euro

Irailaren 21ean eta 22an
Desafíos y compromisos del Turismo
Xabier
Antolatzailea: Jesusen Lagundiaren unibertsitateak Nafarroako Gobernuarekiko lankidetzan
Aurrekontua: 3.000 euro

1996ko azaroaren 27.
Diálogo de jóvenes sobre culturas y civilizaciones
Antolatzailea: ASEF. Asia Etxea
Laguntzailea: Nafarroako Gobernua
Aurrekontua: Lankidetza-hitzarmena formalizatzeko zain

Abenduaren 9an eta 10ean
Sophia University Francis Xavier´s Birth 500th Anniversary International Conference & Symposium
Antolatzailea: Sofiako Unibertsitatea
Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua eta Tokioko Espainiako enbaxada
Aurrekontua: Lankidetza-hitzarmena formalizatzeko zain

2007ko urtarrilean
San Francisco Javier y su tiempo izeneko nazioarteko biltzarra
Goan (Indian)

Laguntzaileak: Nafarroako Unibertsitatea, Oportoko eta Lisboako unibertsitateak, Camoens Institutua, Espainiako enbaxada, Nafarroako Gobernua
Aurrekontua: Lankidetza-hitzarmena formalizatzeko zain

Erakusketak

Martxoan eta apirilean
El Crisantemo y la Espada: Samurais, Geishas y Teatro Kabuki izeneko erakusketa
Nafarroako Museoa
Aurrekontua: 55.800 euro

– Apirila-urria:
Xavier-Arte
Xabierko izpiritualtasun zentroa.
Antolatzailea: Nafarroako Kutxa Fundazioa.
Aurrekontua: 700.000 euro

Ekaina
Kultur aniztasuna. Mugarik gabeko artea
Zangoza Kultur etxea. Vallesantoro jauregia
Aurrekontua: 36.900 euro

Maiatzetik irailera bitarte
Xabier. Eskulturak kanpoan
Jacques Lipchitzen lanak
Aurrekontua: 200.000 euro

Arte eszenikoak eta bestelakoak

Ekainaren 24an eta 25ean
Pati Free
Antzerkia, zirkoa, parte hartzea. Mugarik gabeko umorea
Nazioarteko 8 konpainia
Xabierko Gaztelua
Aurrekontua: 70.100 euro

Uztailaren 15etik abuztuaren 15era bitarte
Munduan barnako zikloa
Antzerkia, dantza, musika, proiekzioak. Europako, Asiako (India, Japonia) eta Afrikako (Mozambike) hainbat taldek hartuko dute parte.
Frantzisko Jatsukoaren auditorioan
Aurrekontua: 555.600 euro

Udako gauak
Gog i Magog
Frantzisko Xabierkoari buruzko kale ikuskizun erraldoia
Gazteluaren aurreko zabalgunea
Aurrekontua: 162.200 euro

Abenduaren 2tik 16ra
José Pemánen El Divino Impaciente
Gaiarre Antzokia eta Nafarroako kultur etxeak
Aurrekontua: 197.200 euro

Ikusentzutekoa

Apirilaren 6tik aurrera
Frantzisko Jatsukoaren Aretoan dokumentalen proiekzioak:
Un navarro en tierra de los daimios. El legado de Francisco de Javier en Japón.
La huella universal de Francisco de Javier
Aurrekontua: 95.800 euro

2005ean eta 2006an, Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren ospakizuna dela-eta egin diren publizitate kanpainek 1.182.680 euroko inbertsioa izan dute. Aipatu kanpaina sortzeaz eta kudeatzeaz "Gap´s Navarra" izeneko enpresa arduratu da, enpresa horrek irabazi baititu ekitaldi horiei dagozkien lehiaketak.

Xabier 2006 izeneko A20000 A2000 7819 337 100 kontusaila handitzeko aukerari dagokionez, esan behar dugu Ekonomia eta Aurrekontu Politikako zuzendari nagusiak, martxoaren 10eko 41/2006 Ebazpenaren bidez, kreditua 350.152 eurorekin zabaltzeko baimena eman duela eta Nafarroako Parlamentuari jakinarazi zaiola.

Halaber, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 50. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aurreikusita dago aipatu kontusail horretan dirua gehitzea, kredituak sortuz, hainbat erakunderekin sinatu diren edo sinatuko diren lankidetza hitzarmenen ondorioz; hitzarmen horiek sinatu dira hala erakunde pribatuekin, Nafarroako Kutxa Fundazioa kasu, nola erakunde publikoekin, estatuko administrazio orokorrarekin, esaterako.

Dirua gehitzea justifikatzen da V. mendeurrena ospatzeko programa irekia delako eta ekitaldi gehiago sar daitezkeelako; betiere, erabilgarri dagoen diruaren arabera, administrazioen interesaren arabera, eta programan nola edo hala parte hartu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoen interesaren arabera.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 30ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

# Galdera, ikastetxe, herri eta ereduen araberako matrikulazio datuei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak ikastetxe, herri eta ereduen araberako matrikulazio datuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du 2002-2003, 2003-2004 eta 2005-2006 ikasturteetako eskola-matrikulazioaren azken datuei buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

I. eranskina: 2002-2003 ikasturtea

II. eranskina: 2003-2004 ikasturtea

III. eranskina: 2005-2006 ikasturtea

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Hezkuntza kontseilaria. Luis Campoy Zueco

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

---

# Galdera, Audenasak TeleTac txartelak ezartzeko asmorik ba ote duen jakitekoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Mª Gracia Iribarren Ribas andreak Audenasak TeleTac txartelak ezartzeko asmorik ba ote duen jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

"Socialistas del Parlamento de Navarra" parlamentu-taldeko foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdetu du ea Autopistas de Navarra, S.A. enpresak Tele Tac txartelak ezartzeko asmorik ba ote duen. Horren inguruan, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak esan behar du, Luis Beloso Gridilla legelariak egindako txostenean oinarrituta, ezin duela eskaria bete. Txostena egin zen, Autopistas de Navarra, S.A. enpresak eskatuta, aipatu entitate horri buruzko parlamentuko beste galdera bat zela eta.

Irizpen horren kopia erantsi dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

---

## Galdera, Parisen eginiko Marc-Antoine Charpentierren lanen kontzertuko gastuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Parisen eginiko Marc-Antoine Charpentierren lanen kontzertuko gastuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Abenduaren 3an Iruñean eta abenduaren 4an Madrilen, London pro arte orkestrak, Iruñeko Ganbera Abesbatzak eta hainbat bakarlarik Marc Antoine Charpentierren lanekin eskainitako kontzertuen kostua 75.480 eurokoa izan zen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, Juan Andrés Jiménezen “La vida de un hombre santo” lanaren estreinaldirako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Juan Andrés Jiménezen “La vida de un hombre santo” lanaren estreinaldirako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Juan Andrés Jiménezek konposatutako “Gizon santu baten bizitza” izeneko opera estreinatzeko ezarrita dagoen gehienezko aurrekontua 15.200 eurokoa da. Opera hori Iruñeko San Frantzisko elizan estreinatuko da apirilaren 8an, eta Xavier orkestrak, Oberena abesbatzak eta hainbat bakarlarik interpretatuko dute.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, Pablo Sarasate Orkestrak, Iruñeko Orfeoiak eta bakarlari batzuek emanen duten kontzertu sinfonikorako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Pablo Sarasate Orkestrak, Iruñeko Orfeoiak eta bakarlari batzuek emanen duten kontzertu sinfonikorako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Xabierko Frantzisko Jatsukoaren aretoan apirilaren 9an izanen den kontzertuaren gehienezko aurrekontua 61.000 eurokoa da. Kontzertu hori Nafarroako orkestra sinfonikoak, Iruñeko Orfeoiak eta Leireko Monasterioko monjeen abesbatzak emanen dute.

Aurreikusitako egitaraua da W.A. Mozarten Meza Do klabean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, Pablo Sarasate Kontserbatorioko Orkestrak Lorenzo Ondarraren Te Deum mezaren estreinaldia egiteko dagoen aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Pablo Sarasate Kontserbatorioko Orkestrak Lorenzo Ondarraren Te Deum mezaren estreinaldia egiteko dagoen aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

2007ko abenduaren 3an, Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenari amaiera emateko ekitaldien artean, Nafarroako Orkestra Sinfonikoak Lorenzo Ondarraren Meza eta Te Deum-a eskainiko du. Kontzertu hori antolatzeko ezarrita dagoen gehienezko aurrekontua 31.400 eurokoa da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## Galdera, Espainiako Irrati Telebistako Orkestrak emanen duen kontzertuaren aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Espainiako Irrati Telebistako Orkestrak emanen duen kontzertuaren aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Espainiako Irrati Telebistako Orkestraren ordezkariekin izandako elkarrizketetan aurreakordio bat lortu ondoren, horiek ezetza eman zioten Nafarroako Gobernuak mendeurrenaren urtea dela eta, telebistaz ematen dituzten kontzertuetako bat Xabierren egiteko luzatu zien eskaintzari. Kontzertu hori ez egiteko, atxikita dauden erakunde publikoak azken hilabeteetan izan dituen lan arazoak argudiatu zituzten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, RTVEko orkestraren ekainaren 30eko kontzerturako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak RTVEko orkestraren ekainaren 30eko kontzerturako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Espainiako Irrati Telebistako Orkestraren ordezkariekin izandako elkarrizketetan aurreakordio bat lortu ondoren, horiek ezetza eman zioten Nafarroako Gobernuak mendeurrenaren urtea dela eta, telebistaz ematen dituzten kontzertuetako bat Xabierren egiteko luzatu zien eskaintzari. Kontzertu hori ez egiteko, atxikita dauden erakunde publikoak azken hilabeteetan izan dituen lan arazoak argudiatu zituzten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## Galdera, Parisko Anaiki Abesbatzak emanen duen kontzertuaren aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Parisko Anaiki Abesbatzak emanen duen kontzertuaren aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

“Mil voces cantan a Javier” izeneko kontzertuen programaren barnean, uztailaren 8an, Anaiki Abesbatzak kontzertu bat eskainiko du Xabierko Frantzisko Jatsukoaren Aretoan. Kontzertu horren gehienezko aurrekontua 1.200 eurokoa da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## Galdera, Frantzisko Xabierkoaren antzerki lana taularatzeko aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Frantzisko Xabierkoaren antzerki lana taularatzeko aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

“Munduan barna” izeneko programa eszenikoa uztailaren bigarren hamabostalditik abuztuaren bigarren hamabostaldira bitartean gauzatuko da Xabierko Frantzisko Jatsukoaren Aretoan. Programa horretan, Europa, Asia eta Afrikatik etorritako zenbait taldek antzerkia, dantza eta musika emanaldiak eskainiko dituzte. Programaren gehienezko aurrekontua 555.600 eurokoa da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## Galdera, Afrika, India eta Japoniako folklore-taldeen ekitaldietarako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Afrika, India eta Japoniako folklore-taldeen ekitaldietarako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

“Gog i Magog”, Frantzisko Xabierkoari buruzko kale ikuskizun erraldoia, Xabierko Gazteluaren aurreko zabalgunean antzeztuko da, udako arratsgauetan. Programa horren gehienezko aurrekontua 162.200 eurokoa da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, foru erkidegoko abesbatza eta musika banden ekitaldietarako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak foru erkidegoko abesbatza eta musika banden ekitaldietarako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

“Mil voces cantan a Javier” izeneko kontzertuen programaren barnean, hainbat abesbatzek, batez ere nafarrak, emanaldiak eskainiko dituzte Xabierko Frantzisko Jatsukoaren Aretoan, larunbat, igande eta jaiegunetan, apirilaren 1etik irailaren 30era bitartean. Programa horren gehienezko aurrekontua 117.000 eurokoa da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

# Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren otsailaren 15eko 36/2006 Foru Aginduan galdatzen den dokumentazioa, administrazioaren eskuetan dagoena, eskatzeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren otsailaren 15eko 36/2006 Foru Aginduan galdatzen den dokumentazioa, administrazioaren eskuetan dagoena, eskatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

## ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera egin du Kultura eta Turismo Departamentuko Turismoaren Sustapenerako eta Irudi Turistikorako Zerbitzuan praktiketako zazpi beka emateko deialdiarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikuluan ezarrita dauden herritarren eskubideen artean, aitortzen da herritarrek eskubidea dutela “ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplika dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere”.

Geroztik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra ezartzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeak, gaur indarrik gabe dagoenak, ezartzen zuen dirulaguntzen onuradunek, dirulaguntza hori kobratu aurretik, Nafarroako Ogasun Publikoarekin zituen betebeharrak eguneratuta zituela frogatu behar zuela.

Hala ere, Nafarroako Gobernuko departamentuek emandako prestakuntzarako beken kasuan izandako berezitasun batzuk zirela eta, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan eta haren erakunde autonomoetan prestakuntzarako bekak emateko araubide orokorra ezarri zen, apirilaren 19ko 172/2004 Foru Dekretuaren bidez. Erregelamendu hori berariazko araua da.

Aipatu foru dekretuaren 12.2. artikuluan, hitzez hitz, hau esaten da: “Jarduketan hasten denean, eta Nafarroako Ogasun Publikoko zergaduna bada, onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du zerga betebeharrak eguneraturik dituela egiaztatzeko, bai eta zinpeko aitorpen edo promesa, helburu bererako bestelako departamentu, administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuen laguntza publiko bateraezinik ez dela jasotzen ari frogatzeko”.

Azkenik, galderan aipatzen denez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 9. e) artikuluak ezartzen du onuradunek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneraturik izan behar dituela dirulaguntza emateko ebazpen proposamena ematen denean. Artikulu horretan ezarritakoa eta ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legean ezarritakoa oso antzekoak dira; bion arteko desberdintasun bakarrak dira zerga betebeharrak eguneraturik dituela frogatu beharreko unea aldatzea eta frogatu behar hori Gizarte Segurantzarekiko betebeharretara ere zabaltzea.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak dirulaguntzei buruzko foru legean ezarritakoaren arabera egokitu ditu bere jarduerak, lege hori indarrean dagoenetik, baita herritarren eskubideak lehentasunez biltzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoaren arabera ere. Horren froga da Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren otsailaren 2ko 14/2006 Foru Agindua, departamentuaren eskumenekoak diren hamar deialdiren arau-oinarriak onetsi zituena. Deialdi horietan formalizaturiko eskabideetan organo kudeatzaileari baimena ematen zaio Foru Ogasunak, estatuko Tributu Administrazioaren Agentziak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko. Hori guztia egin da herritarren eskubideen eta segurtasun juridikoaren printzipioaren artean oreka bilatzeko, baita 2001. urtean administrazio prozedurari buruzko legeko

hemezortzigarren xedapen gehigarriak ezarritakoa aplikatzeko ere.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoetan prestakuntzarako bekak emateko araubide orokorra ezarri zuen apirilaren 19ko 172/2004 Foru Dekretuak biltzen dituen xedapenen hitzez-hitzekotasunaren aldeko hautua eta herritarrek administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ez aurkezteko duten eskubidea bateraezinak izan daitezkeela onartzen dugu. Hala ere, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren eskumenen esparruan ematen diren prestakuntzarako beken organo kudeatzaileek aipatu Foru Dekretuan ezartzen den ziurtagiria ofizioz eskatuko lukete, interesdunek horretarako baimena eman ondoren. Ziurtagiri hori eskatzeak ez luke eraginik izanen Turismoaren Sustapenerako eta Irudi Turistikorako Zerbitzuan praktiketako zazpi beka emateko deialdiaren balioan; izan ere, ziurtagiri hori jardueraren hasieran aurkeztu behar da eta ez bekak adjudikatzeko eta agiriak aurkezteko fasean.

Dena den, beken izapideak egiten dituzten organoei argibideak emanen zaizkie, hurrengo deialdietan aipatutako guztia kontuan izan dezaten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 17an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

# Galdera, Nafarroako Museoan eginen den grabatu japoniarrei buruzko erakusketarako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Nafarroako Museoan eginen den grabatu japoniarrei buruzko erakusketarako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

2006ko martxoaren 9tik apirilaren 23ra bitarte, “El Crisantemo y la Espada. Samurais, Geishas y Teatro Kakubi” izeneko erakusketa ikusgai egonen da Nafarroako Museoan. Erakusketa hori antolatzeko gehienezko aurrekontua 55.800 eurokoa da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, “El mundo alrededor de Javier” izeneko kongresuaren antolaketari eta hartarako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak “El mundo alrededor de Javier” izeneko kongresuaren antolaketari eta hartarako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Aurreikusita dago “El mundo alrededor de Javier” izeneko kongresua bi fasetan egitea, lehenengoa 2006ko udaberrian eta bigarrena udazkenean.

Kongresuaren lehen fasea Nafarroako Museoan egin zen, martxoaren 28tik apirilaren 6ra bitarte; Nafarroako Gobernuko Kultura eta Turismo kontseilariaren otsailaren 15eko 38/2006 Foru Aginduaren bidez, Palacio de Congresos y Auditorio Baluarte S.A. izeneko sozietatea arduratu zen fase hori antolatzeaz.

Kongresuaren bigarren faseari dagokionez, aurreikusita dago Nafarroako Errege Artxibo Nagusian eta Xabierren egitea, azaroaren 8tik 11ra bitarte; fase hori Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren zerbitzuak antolatzen ari dira.

Programa horren gehienezko aurrekontua 197.200 eurokoa da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetari buruz Mexiko, Goa eta Tokion egitekoak diren kongresuen aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Frantzisko Jatsu eta Azpilkuetari buruz Mexiko, Goa eta Tokion egitekoak diren kongresuen aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez du diruz lagundu Mexikon, 2006ko urtarrilaren 30etik otsailaren 1era bitarte, ospatu zen “San Francisco Javier entre dos continentes” izeneko kongresua.

2007ko urtarrilean, Goan (India) ospatuko den "San Francisco Javier y su tiempo" izeneko kongresuari dagokionez, laguntza ekonomikoa ematea entitate laguntzaileek sinatuko duten lankidetza hitzarmenaren esku egonen da; honakoak dira entitate horiek: Nafarroako unibertsitateak eta Oportoko unibertsitatea, Camoens Institutua eta Espainiako enbaxada. Edozein kasutan ere, laguntza hori 2007ko aurrekontuaren kargura izanen da.

Gauza bera esan daiteke Tokioko Sophia unibertsitatean ospatu behar den Francis Xabier´s Birth 500th Anniversary International Conference & Symposium izeneko kongresuaz; izan ere, gaur arte, entitate antolatzaileekin ez da inolako lankidetza hitzarmenik sinatu; entitate horiek dira Sofiako Unibertsitateko Zentro Katolikoa, Espainiak Tokion duen enbaxada eta V. Mendeurreneko Nazioko Kontseilu Aholku-emailea. Kontseilu horren baitan orain arte sinatu den finantzatzeko hitzarmen bakarraren bidez estatuko administrazio orokorrak 107.000 euroko diru-ekarpena egin zuen; mendeurrena dela-eta urte osoan egin behar diren 30 baino gehiagoko kultur programetako bosten artean banatuko da diru hori.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, "Francisco de Javier. Regreso y Encuentro. Misión y compromiso por la vida digna y la justicia" izeneko kongresuaren aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak "Francisco de Javier. Regreso y Encuentro. Misión y compromiso por la vida digna y la justicia" izeneko kongresuaren aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak 15.000 euro eman zizkion Alboan jesuiten GKEari otsailaren 28tik martxoaren 12ra Boliviako San Ignacio de Moxos orkestrak emandako kontzertu ziklorako. "Francisco de Javier: Regreso y Encuentro. Misión y compromiso por la vida digna y la justicia" izeneko kongresuari dagokionez, Xabierren eginen da 2006ko azaroan, eta Nafarroako Gobernuak horren antolakuntzan laguntzeko duen gehienezko aurrekontua 60.000 eurokoa da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, “Un navarro en tierra de los daimios. El legado de Francisco de Javier en Japón” izeneko dokumentalaren ekoizpenerako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak “Un navarro en tierra de los daimios. El legado de Francisco de Javier en Japón” izeneko dokumentalaren ekoizpenerako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Ramón Vilarók zuzendu duen "Un navarro en tierra de los daimios. El legado de Francisco de Javier en Japón" izeneko dokumentalaren ekoizpenerako Nafarroako Gobernuak aurreikusi duen gehienezko aurrekontua 84.000 eurokoa da. Kultura Zuzendaritza Nagusiak, irailaren 29ko 288/2005 Ebazpenaren bidez, Morlanda Producciones S.L. enpresari esleitu zion dokumentalaren ekoizpena.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, “San Francisco Javier y su época: religión, arte, historia, literatura” ikus-entzunezkoaren ekoizpenerako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak “San Francisco Javier y su época: religión, arte, historia, literatura” ikus-entzunezkoaren ekoizpenerako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

“”San Francisco de Javier y su época: religión, arte, historia, literatura” izeneko ikus-entzunezkoa Nafarroako Unibertsitateak sustatu du; beraz, ezin ditugu eman galderan eskatutako datuak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, V. mendeurrenaren aipamena egiten duten orrialde-markagailu egutegidunen ediziorako aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak V. mendeurrenaren aipamena egiten duten orrialde-markagailu egutegidunen ediziorako aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Liburutegi Zerbitzuak, aurreko urteetan bezala, orrialde-markagailu bat argitaratu du Nafarroako liburutegi publikoetako erabiltzaileen artean banatzeko. Aurtengo orrialde-markagailuarekin Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena gogoratu nahi da; hori dela-eta, orrialde-markagailuko aurkian, Frantzisko Xabierkoa Indian eta Japonian zehar egindako ibilbideen mapa, 1682. urtean Parisen argitaratu zena, agertzen da. Jatorrizko mapa Nafarroako Liburutegi Nagusian gordeta dago.

35.000 ale argitaratu dira; gaztelaniaz 26.500 eta euskaraz 8.500. Gehienezko aurrekontua 1.500 eurokoa da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, liburutegi publikoetan Frantzisko Xabierkoari buruzko informazio-guneak paratzeko aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak liburutegi publikoetan Frantzisko Xabierkoari buruzko informazio-guneak paratzeko aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako liburutegi publikoen sarean Frantzisko Xabierkoari buruzko informazio guneak jartzea liburutegi horien erabiltzaileei zuzendutako jarduera da. Jarduera horretarako ez dago aurreikusita diru kopururik; izan ere, gastu horrek ez du

berezko garrantzirik, eta liburutegiek dituzten baliabideekin eta liburutegi horien ohiko aurrekontuaren kargura egiten da.

Nafarroako liburutegi publikoetan irakurketa sustatzeko, edukia gaurkotasunaren arabera, irakurleen eskaeraren arabera edo ospakizun aipagarrien arabera erabaki ohi da. Horrela, 2004an Donejakue bidea sustatu zen, eta 2005ean El Quijoteren IV. mendeurrena ospatu zen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, Xabierren turismo-bulego bat instalatzearen kostuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Xabierren turismo-bulego bat instalatzearen kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak 80.725,25 euro inbertitu ditu Xabierren turismo bulegoa izanen den lokal bat egokitzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 7an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

---

## Galdera, Xabierren ospatze-urtean zehar guneak eta ekipamenduak prestatzeko aurrekontuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Xabierren ospatze-urtean zehar guneak eta ekipamenduak prestatzeko aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 21eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du San Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1999. urteaz geroztik, Nafarroako Gobernuak hainbat jarduketa egin ditu San Frantzisko Xabierkoaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldi duinak eta bere garrantziaren neurrikoak antolatzeko, eta, hori dela eta, Xabierko ingurua behar bezala hornitu du, ez soilik urte horretarako, etorkizunerako baizik. Horren ondorioz, Xabier kultura eta turismo gune bilakatu da; hain zuzen ere, Nafarroaren erakusleiho bat Espainiaren eta munduaren aurrean.

Harrezkero, Nafarroako Gobernuak ahalegin handia egin du 2006. urte honetan Xabierrek azpiegitura egokiak izan ditzan, jasoko dituen hainbat eta hainbat bisitariri –milioi bat, kalkuluen arabera– arreta egokia emateko.

Azpiegituren arloan, Nafarroako Gobernuak ondoko jarduketak egin ditu, Jesusen Lagundiaren eta Iruña-Tuterako Artzapezpikutzaren lankidetzarekin:

Xabierko Gaztelua eraberritzea eta museo bihurtzea- 2.395.738 euro

Basilikako plazan zoladura jartzea eta espiritualtasun-zentroa estaltzea- 362.000 euro

Frantzisko Jatsukoaren aretoa- 1.387.500 euro

Georg Schurhammer dokumentazio-zentroa, 105.000 euro.

Sarbideak eta aparkalekuak- 2.290.800 euro

Parrokia-eliza- 104.262 euro

Xabierko aterpetxea- 180.000 euro

espiritualtasun-zentroa- 171.864 euro

Argiteria- 174.073 euro

Mugikortasun mugatua duten pertsonentzako sarbideak eta instalazioak- 350.152 euro

Turismo bulegoa- 80.725 euro

Foruzaingoaren bulegoa- 50.151 euro

Jarduketa horien artean, Jesusen Lagundiak eta Iruña-Tuterako Artzapezpikutzak, emandako dirulaguntzen onuradunak diren aldetik, aukeratutako enpresek honakoak egin dituzte: gaztelua eraberritzea eta museo bihurtzea, basilikako plazan zoladura jartzea, espiritualtasun-zentroa estaltzea, eliza zaharberritzea, Xabierko aterpetxea egokitzea, eta mugikortasun mugatua duten pertsonentzako sarbideak egitea.

Beste jarduketei dagokienez, honakoak izan dira enpresa adjudikazio-hartzaileak:

Sarbideak eta aparkalekuak- Navasfalt

Argiteria- Ingeman e Ingeniería Sánchez Casafranca

Turismo bulegoa- Naclima, Manolo Lara, Juan Manuel Baines, Larrate y Ariz

Foruzaingoaren bulegoa- Obenasa

Adjudikazioa egiteko kontuan izan diren irizpideak hauek dira: prezioa, exekuzio epeak edo/eta, kasuaren arabera, lan-egitasmoak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 6an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

# Galdera, “Nafarroako Erresuma, lur anitza” esloganari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak “Nafarroako Erresuma, lur anitza” esloganari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak galdera egin du Nafarroako turismo-markarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Kultura eta Turismo Departamentuak, Turismo Zuzendaritza Nagusiaren bidez (Turismoaren Sustapenerako eta Irudi Turistikorako Zerbitzua), “Reyno de Navarra. Tierra de Diversidad” (Nafarroako Erresuma. Lur anitza) izeneko turismo-marka erregistratu du, bai ikur grafikoa bai mezu iraunkorra.

| Espediente zenbakia | Motak | Izena |
|---|---|---|
| M 2.645.975(2) | 39,41,43 | **NAFARROAKO ERRESUMA, LUR ANITZA** (Erregistroan sarturik daude logotipoa eta mezu iraunkorra) |

Edozein entitatek, elkartek, enpresak edo pertsona fisikok turismo-marka eta mezua erabili nahi badu, aldez aurretik, Nafarroako Gobernuari baimena eskatu behar dio; beraz, ezin da libreki erabili.

Logotipoa edonon erabili nahi bada baimena eskatu behar zaie Turismo Zuzendaritza Nagusiari (Turismoaren Sustapenerako eta Irudi Turistikorako Zerbitzua, erabilera zuzena egiten den ere ikuskatzen duena) edo Gobernuko Eledunaren Bulegoaren menpe dagoen Komunikazio Zuzendaritza Nagusiari.

Baimena ematen da Nafarroako turismo-marketineko plan integralaren helburuekin eta turismomarkaren gidaliburuarekin bat datozen irizpideei jarraikiz. Oro har, gidaliburuan esandakoa errespetatzen bada, eta proposatutako euskarriek turismo-markaren hedapena errazten badute, erabiltzeko baimena beti ematen da.

2005eko abuztuan, Komunikazio Zuzendaritza Nagusia-Gobernuko Eledunaren Bulegoak, Turismo Zuzendaritza Nagusiari kontsultatu ondoren, Club Atlético Osasunari honek proposatutako euskarrietan “Reyno de Navarra. Tierra de diversidad” logotipoa erabiltzeko baimena eman zion, bi erakundeen artean hurrengo hiru urteetarako aurreikusten den babes-hitzarmenaren aurrerakin gisa.

Bestalde, Komunikazio Zuzendaritza Nagusia-Gobernuko Eledunaren Bulegoak honakoekin publizitateko kontratuak sinatu ditu: Club Atlético Osasunarekin, 2005eko udazkenean jokatu ziren UEFAko bi partiduetan jokalarien kamisetetan “Reyno de Navarra. Tierra de diversidad” logotipoa agertzeko; eta 2005-2006 denboraldirako, Cub Multideportes Peralta taldearekin eta MRA – Xota taldearekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 11n

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

# Galdera, Osasun Departamentuak plangintza eta aurreikuspena direla-eta zentro psikogeriatrikoari egindako proposamenari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Osasun Departamentuak plangintza eta aurreikuspena direla-eta zentro psikogeriatrikoari egindako proposamenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Osasun Departamentuak plangintza eta aurreikuspena direla-eta San Francisco Javier zentro psikogeriatrikoari egindako proposamenari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Urte honetan, tutoretza bidezko laguntza unitatea izanen dena San Francisco Javier Zentro psikogeriatrikoko txaleta esaten dioten eraikinean kokatzeko behar ziren berrikuntzak egin dira. Aipatu unitate horretan adimeneko nahaste larria duten 12 pertsona artatuko dira.

Bestalde, Gizarte Ongizate Departamentuarekin batera, Iruñeko, Tuterako, Lizarrako eta Elizondoko errehabilitazio psikosozialeko zentroak eta eguneko zentroak abian jarri dira. Zentro horietan, besteak beste, adimeneko nahaste larria duten pertsonentzako lanaren bidezko terapia zerbitzuak eskaintzen dira.

Zentro horiek lau udalerrietan batera ireki dira, eta guztira, 215 toki eskaintzen dira. Eskaintzak talde horrek sentitzen duen premiari erantzun dio, eta bide batez, gaixoek zerbitzuak beren bizitokietatik hurbilago dituzte.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 15ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

---

# Galdera, kontratazio mahaiari buruzkoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira, kontratazio mahaiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Kontratazio Mahaiari buruz, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Nork osatzen dute Kontratazio Mahaia?

Kontratazio Mahaia honakoek osatzen dute:

Kontratazio mahaiburua: Ángel Sanz Barea, Informazioaren Gizarterako zuzendari nagusia.

Mahaikideak:

– José María Abad Alegría, Justizia zuzendari nagusia.

– José Luis Menéndez Rodríguez, Informazioaren eta Telekomunikazioen Gizartea Sustatzeko Zerbitzuko zuzendaria.

– Minerva Ullate Fabo, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontu-hartzaile delegatua.

– Jesús Ignacio Ilundáin Suquía, Zuzendaritza Nagusiko Zerbitzuen Antolamendu eta Kudeaketa atalburua.

Idazkaria: – Francisco Javier Patús Guerra, Informazioaren eta Telekomunikazioen Gizartea Sustatzeko Zerbitzuko administraria.

2. Ángel Sanz Barea jauna al da mahaiburua?

Aurreko erantzunaren bitartez argitu dugu hori.

3. Kontratazio Mahaia osatzen dutenetatik, zenbat dira Sanz Barea jaunaren menpeko hierarkikoak Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusian?

Ohikoa da kontratazio mahaikide guztiak gaia dela-eta kasuari dagokion zuzendari nagusiaren menpekoak izatea, kontu-hartzailea izan ezik. Aztergai dugun kasuan, sei mahaikideetatik hiru Informazioaren Gizarterako Zuzendaritzaren menpe daude.

4. Noiz izendatu ziren Kontratazio Mahaiko kideak?

Kontratazio Mahaiko kideen izendapena urtarrilaren 20ko 177/1998 Foru Aginduaren bidez egin zen, eta ordezko batzuen izendapena, ordea, urtarrilaren 24ko 17/2006 Foru Aginduaren bidez.

5. Noiz argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean Kontratazio Mahaiko kideak izendatzeko erabakia?

Mahaia izendatzeko foru aginduak ez dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen, nahitaezkoa ez baita. Kasu honetan ere ez dira argiratatu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 18an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

---

## Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira aldeek errekurtsoak aurkezteko ezarritako epeari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1140/2005 epaiaren betetzearen harira aldeek errekurtsoak aurkezteko ezarritako epeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko martxoaren 27ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren abenduaren 22ko 1140/2005 epaiaren betetzearen harira aldeek errekurtsoak aurkezteko ezarritako epeari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. Zein epe jarri zen aldeek errekurtsoa nahiz errefusatzea aurkeztu ahal izan zezaten, bidezkotzat jotzen bazuten?

Errekurtsoa nahiz errefusatzea aurkezteko epeak ordenamendu juridikoak, oro har, aginduz ezartzen dituenak dira, eta ez da beharrezkoa epe horiek inolako egintza zehatzetan ezartzea.

2. Zein izan ziren gobernuko eta zerbitzu juridikoei eta justizia administrazioari kontsultak egiteko arrazoiak? Zein izan zen erantzuna?

Kontsulta juridikoak egiteko arrazoiak hauek izan ziren: epaiaren betetzea erabakitzeko eskumena duen organoari buruz, eta Ekonomia eta Ogasuna kontseilaria zela iritzi zen; 177/1998 Foru Aginduaren bidez izendatutako mahaiaren iraupenari buruz, eta izendatuak izateko zuten legezko izaera galdua zuten kideak ordezkatzeko iritzia eman zen; aplikatzekoa den araudiari buruz, eta Nafarroako kontratuei buruzko 13/1986 Foru Legea zela iritzi zen; uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legearen eraginari buruz, eta ezin dela aplikatu iritzi zen.

3. Zein irizpideren arabera ordeztu dira 1998ko mahaiko kideak 2006ko mahaia eratzeko garaian?

Hartutako irizpidea izan da kide berriek ordezkatuen postu bera edo (postu hori desagertu bada) postu baliokide bat bete dezaten.

4. Zein egun zehatzetan eratu zen kontratzio mahaia?

2006ko urtarrilaren 17an.

5. Zer erabaki hartu ziren?

Kontratazio mahaiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari lizitaziora aurkeztu diren eskaintzak baloratzeko azterlan bat kontrata dezala eskatzea erabaki zuen. Azterlan hori telekomunikazioei eta ikus-entzunezkoei buruzko aholkularitzan espezializatua den enpresa batek egin beharko zuen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko apirilaren 18an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes


| HARPIDETZAREN PREZIOA<br>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA | IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA<br>**NAFARROAKO PARLAMENTUA**<br>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»<br>Navas de Tolosa, 1<br>31002 IRUÑA |
|---|---|
| Urtebete ........ 43,95 euro<br>Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ........ 1,15 »<br>Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ........ 1,30 » | |

Inprimatzailea: Gráficas Lizarra, SL (Lizarra).

Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua